

Beldurra eta ziurgabetasuna, nagusi 0-3 eskoletan, LAB Irakasuntza Nafarroak hezitzaileen artean egindako inkestan islatu denez

Ikasturte hasi zela jada bi hilabete pasa dira eta hasierako beldurrak eta ziurgabetasunak oraindik nabarmentak dira langileen artean.

Horrexegatik LAB 0-3tik garrantzitsua iruditu zaigu galdetzea nola bizi izan den ezohiko ikasturte honen hasiera. Inkesta Nafarroa osoko 30ren bat eskolatara iritsi da eta 79 erantzun jaso dira osotara (45 gaztelera eta 34 euskaraz).

Erantzun duten hezitzaileen lan egoeran erreparatzen badugu gehienak kontratatuak dira (55/79) eta horietatik 26 ERTEen egon ziren (soldata %100era osatuta zen edo ez, udalaren arabera). Kudeaketa zuzena duten eskolen kasuetan bakarrik 7 dira funtzionarioak, 10 bakantedunak eta 7 aldi baterako kontratatuak.

Protokoloei dagokionez eskasak izan diren sententzioa orokorra dela ikusi da erantzunetan. Zalantza dezente sortu da aplikatzerakoan, batez ere lehenengo kasuak izan zirenean, eta eskola gehienetan kontingentzia-planak kasu positiboak suertatu diren heinean diseinatzen eta zehazten joan dira. Arlo honetan aldarrikapen nagusiak benetan babesgarriak diren musukoen banatzea eta kasu positiboetan hezitzaileak kontaktu zuzentzat hartuta izatea eta PCRa egitea izan dira.

Egoerak **hezitzaileen arteko hartu-emanetan** eta komunikazioan eragina izan du batez ere, bilera pedagogikoak murriztu egin dira eta ematen diren elkarrizketak edota eztabaidak talde txikitatu dira. Elkartzeko une gutxi dago. Honen ondorioz eztabaida pedagogikoa bigarren mailan gelditu da, COVID-19rako protokolo eta garbiketa gaiari garrantzi guztia eman baitzaio orokorrean.

Familiekin topaketak eta informazioa partekatzeko denbora murriztu da, urruntasuna, hoztasuna eta beldurra nagusitu da. Kanpotik inor ez sartzea eta segurtasun neurriak betetzearen beharra sentitu dute eta harremanak asko gutxitu dira. On-line bidea ohiko bilakatu egi, familiekin ere bai.

Bestalde **umeekin aurrez-aurreko lanean** ere izugarri nabaritu da bete behar den protokoloa. Musukoaren erabileraren ondorioak, aurpegiko espresioak ezin ikustea, ezpainak ezin irakurtzea... Gainera, metodologia-pedagogia lantzeko denborarik ez dagoela erantzun dute hezitzaile askok.

Materialak eta espazioak garbitu eta desinfektatzeko behar den aparteko denbora hezitzaileen ordu-tegian txertatu da eta denboraren banaketa ez dela nahikoa adierazi du gehiengo batek.

Langileen, umeen eta familien osasuna bere osotasunean, alderdi emozionala barne, haintzat hartzea ezinbestekoa dela ondorioztatu daiteke hezitzaileak nola sentitu diren ikusita. Aipatu diren sentipenen artean hauexek izan dira gehien errepikatu direnak: ezjakintasuna, beldurra, ziurgabetasuna, babesik gabe, galduta, agobiatuta, errudun, triste, haserre, abandonatuta, baztertuta...


Ratioak eta kontratazioak egokitu behar direla izan da aho batez gehienek erantzun dutena. Eta orain arte, batez ere, higieneari eusteko baliabideak izan dira eskolek jaso dutena aparteko baliabide gisa. Faltan bota dira giza baliabideak baita baliabide pedagogikoak ere.

Nola edo hala mobilizazio beharra ere orokorra da, eta horretarako proposamenak egin dira: eskolen itxialdiak, sinadura bilketak, pankartak eta kartelak eskoletan, familiekin ekintzak eskolatik kanpo, hedabideetara jotzea, eta greba ere bai.



LAB-ek eskola ikasturtearen hasierari buruz eginiko inkestaren grafiko esanahitsu batzuk


Ziur zaude zure jarduera profesionalen?




Zure ustez, segurtasun-neurriak behar bezala aplikatzen ari dira zure eskolan?




Izan da kasu positiborik zure eskolan?




Kasu hauetan protokoloa argia izan da?




Behar bezala aplikatu da protokoloa kasu horietan?




Kasu hauetan berehala eman dizute horren berri?




PCRa egin dizute kasu hauetan?




Etxera bidali zaituzte kasu hauetan?



Kasu hauetan babestuta sentitu zara?



Mobilizatzeko beharra sentitu duzu?



Greba-deialdi bat egiteko baldintzak ikusten dituzu?

